

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasun Departamentuak eskualdeko lau larrialdietako zerbitzu gutxienez abian jarriko ditu Tafallan, Zangozan, Sakanan eta Bidasoa-Donetzteben

Horren ondorioz zerbitzu berriak izango dituzte herritarrek eta antolaketa malgua eta parte-hartzailea izango da

Osteguna, 2017.eko irailak 7

Osasun Departamentuak gutxienez lau Eskualdeko Larrialdietako Zerbitzu abian jarriko ditu pixkanaka, 24 orduetan irekita daudenak, larrialdietan adituak dituen osasun arloko langileak egongo direla. Horrez gain, erradiologia arruntak eta ekografiak egiteko baliabideak izango dituzte eta balio anitzeko ZIU mugikor bat. Aurreikuspena da Tafalla (erdialdeko eremua), Zangoza, Sakana eta Bidasoa-Donetzteberako Eskualdeko Larrialdietako Zerbitzua irekitzea da, eta azpieskualdeko beste gune batzuk irekitzea ere aztertuko da. Horrela jakinarazi du gaur goizean Osasun Kontseilari Fernando Dominguezek, Parlamentuko egoitzan. Hor, Lurraldeko Ereduko eta Landa Larrialdietako proposamena aurkeztu du, despopulazio prozesuei eta sakabanatzearen igoerari aurre egiteko.

Departamentuak lurraldeko ekitatea hobetu eta landa-biztanleei segurtasuna ematen dien larrialdi zerbitzu bat sortu nahi du, biztanleen % 75 larrialdietako berariazko zerbitzu mediku batetik 15 minutu baino gutxiagora egon dadin; hori da 2020. urtean lortu nahi den helburua hain zuzen. Horren ondorioz, larrialdiari arreta azkarragoa emango zaio eta herritarren lekualdatzeak saihestuko dira. Bestalde, proposatutako egiturak prebentzio-ekintzak eta osasuna sustatzekoak sustatu nahi ditu, tokiko esparruan haurrentzako arreta integraleko eremu bat eskaini eta paziente kronikoei eta mendekoei arreta bermatu.

Era berean, Lurraldeko eta Larrialdietako Eredu berriak herritarren ospitale-zerbitzuetarako sarbidea hobetuko du, etxeko ospitaleratze zerbitzuak handituz edo eskualdeko erreferentziako adituak egonez, besteak beste Barne Medikuntzako eta Geriatriako esparruetakoak; baita Osasun Mentaleko edo Sexu eta Ugaltze Osasuneko baliabideak ere.

Aipatutako laguntza-ereduan, eskualdeak erreferentzia-puntua izango dira beharrak berregituratzeko eta berriro definitzeko. Ildo horretan, Departamentuaren asmoa haiezako bakoitzaren antolaketa malgutzea da, haien beharretara egokituz eta partaidetza sozial eta profesionalarekin. Horrenbestez, ez da eskualde-eredu homogeneoa. Proposamenak barne hartzen du Osasun Departamentuaren konpromisoa, epe labur eta ertainera gutxienez gaur egungo Arreta Jarraituko Guneak (AJG) mantentzea. Hala ere, eremu bakoitzaren tipologiaren eta ordutegiaren arabera egokitu litezke.

Proposatutako Lurraldeko eta Landa Larrialdien Ereduan partaidetza, ebaluazio eta berrikuspen prozesu zabala egiten ari dira. Hiru talde teknikorekin hasi zen proposamenen laburpenak jasotzen zituen dokumentu bat eginez, eta geroago, Lehen Arretako Taldeen profesionalak bidali zaie. Halaber, prozesuak bertako erakunde eragileekin jardunaldi bat egitea aurreikusten du, Tafallako eskualdean lehendabizi aplikatzeko eta azken dokumentu bat egiteko. Azkenik, sindikatu-negoziatioko prozesu bat jasotzen da.

Lehen mailako arretako estrategia proposamena

Lurraldeko eta Landa Larrialdietako Eredua Osasun Departamentuko Lehen mailako Arretako estrategia berria kokatzen da, proiektu nabarmen gisa, aldaketa soziodemografikoei, hala nola biztanleen zahartzeari, osasun-arazo kronikoen handitzeari, endekapen-gaixotasunei eta mendekotasun-egoerei aurre egiteko sortu dena. Horrez gain, zerbitzuen bertako mapa berriro ezarri nahi du, arlo bakoitzaren beharretara egokitzeko. Horrez gain, profesionalen erabilgarritasuna bermatzeko oinarriak ere ezarri dira, txanda-plan batekin, 2023. urterako aurreikusitako 437 erretiroen arabera (medikuntzako 208 profesional, erizaintzako 160, 33 pediatra, administratioko 33 eta gizarte-laneko 3).

Lehen mailako Arretako Estrategiaren oinarrien dokumentua bat dator Programa Akordioan ezarritako konpromisoekin. Joan den martxoan aurkeztu zuten eta Lehen mailako Arretako profesionalak gonbidatu zituzten (Nafarroako Osasun Zentro guztietako zuzendaritza-taldeak), Lehen mailako Arretako Laguntza Batzorde Teknikoaren kideak, Zientzia Sozietateak, Elkargo Profesionalak (Medikuen Elkargoa, Erizaintzako, Fisioterapiako eta Gizarte Lanekoa), baita Osasun Departamentuko, Osasunbideko, eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko beste ordezkari batzuk.

Osasun Departamentuak kalitatezko arreta, arreta jarraitua, integrala eta zeharkakoa emateko eta sustatzeko berme nagusizat hartzen du Lehen mailako Arreta, pazienteari orientatuta. Horrez gain, osasun-arreta eskuragarria eman behar du, eta eragile garrantzitsua da lehenespene klinikoan. Era berean, funtsezko eginkizun bat du osasuna eta esku hartzea sustatzeko estrategiak bultzatzeko toki esparruan. Arduradun nagusia da banakako prebentzioan, detekzio goiztiarrean, osasun-zainketak ematen eta pazientearen ahalduntzea sustatzen.

Hobetzeko proposamenak bederatzizko proiektu estrategikotan islatu behar dira Lehen mailako Arretarako. Lurraldeko eta landa-larrialdietako antolaketaz gain, partaidetza, ebazteko gaitasunaren hobekuntza, arreta soziosanitarioa, giza baliabideen kudeaketa, autonomia eta kudeaketa klinikoak, teknologia-garapeneko eredia, prestakuntza eta garapen profesionala, eta haurren arreta integrala barne hartzen dira.

Partaidetza profesionala aldaketaren ardatz nagusi gisa

Osasunbideak partaidetza prozesu zabal eta profesionala bultzatu nahi du, Lehen mailako Arreta ahalduntzeko beharrezkoa delako, arreta integratuko eredu batean emate gisa duen eginkizun nagusia gauzatzeko, beharrezkoak diren baliabideak eta eskudantziak emanez. Pertsonari eta erkidegoari ematen zaie lehentasuna.

Prozesua datorren abendura arte luzatuko da, eta zenbait partaidetza ildo barne hartzen ditu: aurrez aurrekoa, barne-prozesu batekin (eztabaida profesionaleko jardunaldi teknikoak, eztabaida Osasun Zentroetatik eta berriazko alderdiei buruzko inkestak) eta gizarte-partaidetza duen beste prozesu ireki bat, herritarren aurreikuspenak ezagutzeko eta erkidegoaren esku-hartzean eta autozainketan baterako erantzukizuna sustatzeko.

Era berean, berriazko bilerak egingo dira eragile nagusiekin. Horien artean nabarmentzen dira Batzar Teknikoak eta Laguntzazkoak, Zientzia Sozietateak, Elkargo Profesionalak, Lehen mailako Arretako Langileen Batzordea, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordea eta abar. Aurreko jarduerak garatzen diren heinean, jendaurrean erakusteko epea irekiko da Gobernu Irekiko atariaren bidez, hala nahi duten erakundeek eta pertsonak beraien proposamenak egin ditzaten.

Azkenik, proposamenak aztertu ondoren informazioa itzultzeko azken jardunaldi bat antolatuko da,

parte-hartzaile guztiei beraien ekarpenak nola erabili eta kudeatu diren azaltzeko, eta onartutako eta baztertutako proposamenei buruzko informazioa emateko.